

EBAZPENA, 2022ko maiatzaren 23koa, Uraren Euskal Agentziaren zuzendari nagusiarena, Proiektu eta lan hidraulikoak zuzentzeko teknikari lanpostua betetzeko prozesuaren Kalifikazio-epaimahaiko kideak izendatzen dituena.

Uraren Euskal Agentziaren zuzendari nagusiaren 2022ko apirilaren 12ko Ebazpenaren bidez, Uraren Euskal Agentzian zenbait lanpostu behin betiko betetzeko eta lan-poltsak eratzeko hautaketa-prozesuari buruzko IRAGARKIA argitaratu zen 2022ko apirilaren 22ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (EHAA 78. zk.). Argitara emandako lanpostu horien artean dago Uraren Euskal Agentziaren Proiektu eta lan hidraulikoak zuzentzeko teknikari lanpostua.

Uraren Euskal Agentziako Proiektu eta lan hidraulikoak zuzentzeko teknikari lanpostua betetzeko hautaketa-prozesua arautzen duten oinarrien seigarren oinarrian zehaztutakoari jarraituz, Uraren Euskal Agentziaren zuzendari nagusiak izendatutako epaimahai batek ebaluatuko du prozesua.

Horiek guztiak horrela,

ERABAKI DUT

Lehenengoa.- Uraren Euskal Agentziaren Plangintza eta Lanen Zuzendaritzako Proiektu eta lan hidraulikoak zuzentzeko teknikaria hautatzeko prozesuko Kalifikazio-epaimahaiko kideen izendapena egitea.

	Titularra	Ordezkoa
Presidentea	Aitziber Urquijo Luengo (Uraren Euskal Agentzia)	Christian Stocker (Uraren Euskal Agentzia)
Mahaikidea	Jonatan Uson Lobo (Uraren Euskal Agentzia)	Julio Salazar Rodriguez (Uraren Euskal Agentzia)
Idazkaria	M ^a Teresa Mena Aguilar (Uraren Euskal Agentzia)	Eduardo Sancho Iztueta (Uraren Euskal Agentzia)

Bigarrena.- Ebazpen hau Uraren Euskal Agentziaren web-orrian (www.uragentzia.euskadi.eus) eta Campo y Ochandiano kanpoko aholkularitza-enpresaren web-orrian (www.campo-ochandiano.com) argitaratzea.

Gasteiz, 2022ko maiatzaren 23a.

Antonio Aiz Salazar
Zuzendari nagusia
Uraren Euskal Agentzia